

## 1UDAL-BATZARRA 1/06

### UDAL-BATZARRAK, 2006ko OTSAILAREN 16ean EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

#### **PARTAIDEAK:**

#### **ALKATEA:**

Fidel Azpiroz Arrillaga

#### **ZINEGOTZIAK:**

Jose Ignacio Otermin Garmendia

Nieves Alarcos Martinez

M<sup>o</sup> Carmen Egurza Salaberria

Mikel Zubillaga Galarraga

#### **IDAZKARIA:**

Nekane AGIRRESAROBETE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2006ko otsailaren 16ean iluntzeko zortziak eta laurden direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik eta Jesús M<sup>a</sup> Arsuaga Lizaso, Kepa De la Iglesia Sánchez eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

Bilkura hasi aurretik, Alkate jaunak jakinarazten du bilkura hau amaitu bezain laster urgentziatzko beste batera deituko duela bertan Gipuzkoa Donostia Kutzako Biltzar Nagusiko Kontseilari Nagusia eta Kontseilari Nagusiaren ordezkaria izendatzeko.

Previo al inicio de la Sesión, el Sr. Alcalde informa que a continuación de la celebración del presente Pleno convocará otro con carácter de urgencia para tratar la designación del Consejero General y suplente de Caja de Guipúzcoa-San Sebastián, en representación de la Agrupación Anoeta-Ibarra-Legorretan.

#### **1.- 2005EKO AZAROAREN 10 ETA ABENDUAREN 1EAN OSPATURIKO AKTEN ONESPENA.**

Udalbatzak 2005eko azaroaren 10ean eta abenduaren 1ean egindako bilkuren aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leídas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de las sesiones celebradas con fecha 10 de noviembre y 1 de diciembre de 2005.

**2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 413TIK 455RA ETA 1ETIK 33RA, BIAK BARNE.**

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 413tik 455ra eta 1etik 33ra, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números 413 al 455 y del 1 al 33, inclusive; dándose la Corporación por enterada.

**3.- UDAL-LANGILEEI AINTZINATASUNA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Udal honetako aldi baterako eta bitarteko langileei aintzinasuna onesteko proposamena ikusi ondoren.

Vista la propuesta de reconocimiento de antigüedad al personal interino y eventual de este Ayuntamiento.

Alkate jaunak jakinarazten du beste Herri Administrazioetan aplikatzen den modura, Gobernu taldea honek ondorengo proposatzen duela:

El Sr. Alcalde informa a los presentes que según se viene aplicando en otras Administraciones Públicas, el equipo de Gobierno propone:

- Udalak kontrataturiko pertsonalari, Aldi baterako edo bitarteko modura lanean hasi ziren datatik aurrera, hiru urtekoak ordaintzea.
- Edozein Herri Administrazioan, bai karrerako funtzionario bezala bai eta lan-kontratuko langile modura lan eginiko denbora kontutan hartzea.

- Abonar trienios al personal contratado por el Ayuntamiento desde la fecha de inicio en régimen de interinidad o laboral eventual.
- Reconocer el tiempo prestado en cualquier Administración Pública tanto en calidad de funcionario de carrera como de contratado en régimen de derecho administrativo o laboral.

Partaideek aho batez ondorengo onesten dute:

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Lehenengo.- Ondoren aipatzen den pertsonalari dagozkion hiru urtekoak eta ordainketak kontutan hartzea:

Primero.- Reconocer los trienios con sus pagos correspondientes al personal que a continuación se señala:

**BITARTEKO LANGILEAK**

**PERSONAL INTERINO:**

EDURNE MUJIKAZABALA, administrari laguntzailea.

EDURNE MUJIKAZABALA, auxiliar administrativo.

- a) Aintzinasuna dela eta, Udal honekin lan-hitzarmenaren hasiera data 1989ko uztailaren 17an ezartzea, lehengo hirurtekoa 1992ko abuztuaren 1etik aurrera izani.
- b) Goiko atalean aipatzen den datatik aurrera eta 2005eko abenduaren 31<sup>a</sup> arteko hirurtekoak direla eta, 12.891,77 eurotako zenbatekoa onartu eta ordaintzea

- a) Fijar a efectos de antigüedad la fecha de inicio de contratación laboral en este ayuntamiento “17 de julio de 1989” reconociendo el primer trienio el 1 de agosto de 1992.
- b) Aprobar y ordenar el pago de 12.891,77 euros en concepto de los trienios correspondientes desde la fecha señalada en el apartado anterior hasta el 31 de diciembre de 2005.

AMAIA RELLOSO GOROSTIDI, administrari laguntzailea.

AMAIA RELLOSO GOROSTIDI, auxiliar administrativo.

- a) Herri Irakaskuntza Mankomunitatean eginiko lanak kontutan izatea eta ondoren lehenengo hirurtekoa 2002ko abuztuaren 1ean ezartzea.
- b) 2002ko abuztuaren 1etik 2005eko abenduaren 31<sup>a</sup> arteko hirurtekoak direla eta, 1.511,66 eurotako zenbatekoa onartu eta ordaintzea.

- a) Reconocer los servicios prestados en la Mancomunidad Herri Irakaskuntza fijando el primer trienio con fecha 1 de agosto de 2002.
- b) Aprobar y ordenar el pago de 1.511,66 euros en concepto de trienios correspondientes desde el 1 de agosto de 2002 hasta el 31 de diciembre de 2005.

GARIKOITZ LECUONA IZETA, Administrazio Orokorreko Erdi teknikaria.

GARIKOITZ LEKUONA IZETA, técnico medio de Administración General

- a) Hondarribiko udalean eginiko lanak kontutan izatea eta ondoren lehenengo hirurtekoa 2005eko uztailaren 1ean ezartzea.
- b) 2005eko uztailaren 1etik abenduak 31<sup>a</sup> arteko hirurtekoak direla eta, 285,11 eurotako zenbatekoa onartu eta ordaintzea.

- a) Reconocer los servicios prestados en el Ayuntamiento de Hondarribia fijando el primer trienio con fecha 1 de julio de 2005.
- b) Aprobar y ordenar el pago de 285,11 euros en concepto de trienios correspondientes desde el 1 de julio de 2005 hasta el 31 de diciembre de 2005.

**ALDI BATERAKO LANGILEAK:**

**PERSONAL EVENTUAL:**

MIREN GENUA MARTINEZ, Gizarte Laguntzailea.

- a) Irun eta Hondarribiko Udaletan eta Pasaiko Euskaltegian eginiko lanak kontutan hartzea eta ondorioz bigarren hirurtekoa 1994ko abuztuaren 1ean ezartzea.
- b) 1994ko ekainaren 15etik 2005eko abenduak 31<sup>a</sup> arteko hirurtekoak direla eta, 9.121,86 eurotako zenbatekoa onartu eta ordaintzea.

IDOIA OLANO GOIKOETXEA, Hizkuntza normalkuntza teknikaria.

- a) Aintzinasuna dela eta, Udal honekin lan-hitzarmenaren hasiera data 1991eko maiatzaren 7an ezartzea, lehengo hirurtekoa 2004ko ekainaren 1etik aurrera izani.
- b) 2004ko ekainak 1etik 2005eko abenduak 31<sup>a</sup> arteko hirurtekoak direla eta, 553,33 eurotako zenbatekoa onartu eta ordaintzea.

Bigarren.- Arantxa Aburuza Alkorta, administraria, praktiketako funtzionarioari, Usurbil eta Zirukilgo udaletan eginiko lanak kontutan hartzea, ondoren aipatzen diren hirurtekoak eta ordainketak eginez:

- a) Bi hirurteko, Udal honetan praktiketako funtzionario bezala, alegia, 2005eko azaroaren 2ko

MIREN GENUA MARTINEZ, Asistente social.

- a) Reconocer los servicios prestados en el Ayuntamiento de Irun, Fuenterrabia y el Euskaltegi de Pasaia fijando el segundo trienio con fecha 1 de agosto de 1994.
- b) Aprobar y ordenar el pago de 9.121,86 euros en concepto de trienios correspondientes desde el 15 de junio de 1994 hasta el 31 de diciembre de 2005.

IDOIA OLANO GOIKOETXEA, Técnico normalización lingüística.

- a) Fijar a efectos de antigüedad la fecha de inicio de contratación laboral en este ayuntamiento “7 de mayo de 2001” reconociendo el primer trienio el 1 de junio de 2004.
- b) Aprobar y ordenar el pago de 553,33 euros en concepto de trienios correspondientes desde el 1 de junio de 2004 hasta el 31 de diciembre de 2005.

Segundo.- Reconocer a favor del administrativo, funcionario en prácticas, Dña. Arantxa Aburuza Alkorta, los servicios prestados en los Ayuntamientos de Usurbil y Zizurkil, computando el tiempo de trienios y pagos correspondientes según se señala a continuación:

- a) Aprobar el reconocimiento de dos trienios a fecha de inicio como funcionario en prácticas de este

- |  |   |
|--|---|
| <p>datatik aurrera ezartzea.</p> <p>b) Hirugarren hirurtekoa 2007ko abuztuaren leian ezartzea.</p> <p>c) 2005eko azaroaren 2tik abenduak 31a arteko hirurtekoak direla eta, 219 eurotako zenbatekoa onartu eta ordaintzea.</p> | <p>Ayuntamiento 2 de noviembre de 2005.</p> <p>b) Aplicar con fecha 1 de agosto de 2007 el tercer trienio</p> <p>c) Aprobar y ordenar el pago de 219 euros en concepto de trienios correspondientes desde el 2 de noviembre de 2005 hasta el 31 de diciembre de 2005.</p> |
|--|---|

**4.- ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI POSTUA SORTZEKO PROPOSAMENA.**

<p>2005eko abenduaren 1eko Udaltzarak onetsiriko Udal Plantila Organikoa eta Lanpostu-zerrenda aldatzeko alkate jaunak aurkezturiko ondorengo proposamena ikusi ondoren:</p>	<p>Vista la siguiente propuesta presentada por el Sr. Alcalde con relación a la modificación de la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento y consiguiente Relación de Puestos de Trabajo, aprobadas por el Pleno municipal en sesión celebrada el día 1 de diciembre de 2005:</p>
--	---

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO  
TEKNIKARI BATEN PLAZAREN  
SORRERA**

Erdi Mailako Teknikari baten plaza amortizatzeke eta Azpieskala Teknikoko Administrazio Orokorreko Goi-mailako Teknikari baten plaza sortzeko beharra planteatu da, ondoren zehazten diren lanpostuari dagozkion ezaugarriekin, eta orientazio gisa azaltzen diren eginkizunak betetzeko helburuarekin:

*Plazaren ezaugarriak.*

Plaza hori Udal Elkarteko plantilla unitariokoa da, eta ez du lanpostu jakin batean jarduteko eskubiderik ematen. Hasiera batean, erdi-mailako Tekniko baten amortizazioaren ondorioz sortuko litzatekeen Administrazio Orokorreko

**CREACIÓN DE LA PLAZA DEL  
TÉCNICO ADMINISTRACIÓN  
GENERAL**

Se plantea la necesidad de amortizar la plaza de Técnico medio y creación de la plaza Técnico Superior de Administración General de la Subescala Técnica, con las características del puesto que se definen a continuación y con el fin de dar cobertura a las funciones que orientativamente se describen:

*Características de la plaza.*

Dicha plaza se integraría en la plantilla unitaria del Ayuntamiento y no conllevará derecho a prestar servicios en un puesto determinado. Inicialmente, la plaza se corresponde con un puesto de Técnico de Administración General que se

Teknikari lanpostua betetzeko izango da.

**Departamentua:** Zerbitzu Orokorrak

**I z e n a :** Azpieskala teknikoko Administrazio Orokorreko teknikaria.

**Sailkapen taldea:** A

**Ordainketa-maila:** ARCEPAFE 17

**Hizkuntza eskakizuna:** 4.

Eginkizunak:

- Lanpostu horrek Administrazio Orokor Teknikoko eginkizunak ditu, Administrazio goi-mailako kudeaketa lanak burutzea, eta azterketa eta proposamenak egitea. Horrez gain, eginkizun izango ditu Alkatetzako eta/edo Idazkaritzako aginte organoek agindutako bestelako zereginak.

- Hasieran beteko duen lanpostuaren oinarritzako eginkizunak, inolako izaera mugatzailerik gabe, honako hauek izango dira:

A. Hirigintza

- Aholkularitza, kudeaketa, izapidetze eta espedienteen jarraipena hirigintza gaietan, obra, sailkaturiko jarduera, etab.etan.

- Hirigintzako planeamendu, diziplina eta egikaritze espedienteen izapidetze zuzena kudeatu eta zaindu, espedienteen kontrola eta jarraipena

generaría por amortización de la plaza de Técnico medio.

**Departamento:** Servicios Generales

**D e n o m i n a c i ó n :** Técnico de Administración General de la Subescala técnica.

**Grupo de Clasificación:** A

**Nivel retributivo :**ARCEPAFE 17

**Perfil lingüístico:** 4.

Funciones:

- Las correspondientes a los Tecnicos de Administración General, la realización de las tareas de gestión, estudio y propuesta de carácter administrativo a nivel superior, además de las específicas que la Alcaldía y o Secretaria exija en su caso.

- Las funciones básicas del puesto de trabajo que inicialmente va a cubrir, sin ningún carácter limitativo, son las siguientes:

A. Urbanismo

- Asesoramiento, gestión, tramitación, control y seguimiento de los expedientes en materia urbanística, obras, actividades clasificadas, etc.

Gestionar y velar por la correcta tramitación de los expedientes de planeamiento, de ejecución y de disciplina urbanística, cuando sea necesario,

eginez, eta behar denean, iragarkiak, adostasun proposamenak eta txostenak, jakinarazpenak, etab. prestatuz.

### B. Giza Baliabideak

- Udal Gobernuaren eta Langileriaren artean hitzarturiko baldintzen betetzeari buruzko jarraipena eta kudeaketa (Lan-ordutegiaren Kontrol araudia, Lanpostuen Baloraziorako araudia, lan-egutegia, ordutegiak, laneko bajak, bakoitzaren eta departamenduaren opor-egutegiak, lanera ez agertzeak, atsedendialdiak, aparteko orduak, plusak, etab.)

-  
-

- Langileriaren Batzordeetara, Lanpostuen Balorazio Batzordeetara eta esleitu diezazkioketen beste batzuetara joatea.

- Langileria hautatzeko, kontratatze eta sustatzeko oinarriak prestatzea.

- Langileriaren kudeaketa: barne-sustapena, hautapena, formazioa.

- Langileria Hautatzeko frogan Kalifikazio-Epaimahaietara joatea eta Idazkaria ordezkatzeko, horretarako eskuordetza ematen zaionean.

### C. Ekonomi Arloa

- Idazkari—kontu-hartzaileari lagundu udal ordenantzen eta erregelamenduen prestatetan.

- Gainbalioen espedienteen

preparando anuncios, propuestas de acuerdo y dictámenes, notificaciones, etc., efectuando el control y seguimiento de los expedientes.

### B. Recursos Humanos:

- Efectuar el seguimiento y gestión del cumplimiento de aquellas condiciones que se hayan pactado entre el Gobierno Municipal y el Personal (Normativa de Control de Presencia, normativa para la Valoración de los Puestos de Trabajo, calendario laboral, horarios, bajas laborales, calendarios vacaciones individuales y departamentales, absentismo, pausas, horas extras, pluses, etc.)

- Asistir a las Comisiones de Personal, Comité de Valoración de los Puestos de Trabajo y otras que siendo de puedan serle asignadas.

- Elaborar bases para la selección, contratación y promoción de personal.

- Gestión de personal: promoción interna, selección, formación.

- Asistir a los Tribunales Calificadores de pruebas de Selección de Personal y sustituir al Secretario cuando así le sea delegado.

### C. Área económica

- Colaborar con el secretario-interventor en la elaboración de las ordenanzas municipales y reglamentos.

- Controlar e impulsar la tramitación de

izapidetzea kontrolatu eta sustatu eta bere kasuan gainbalioen espedienteen jarraipena eta artxiboa egin.

#### D. Beste egitekoak

- Etengabeko hobekuntzako prozesuak teknikoki sustatu eta lagundu eta Helburuen Zuzendaritza ezarri.

- Administrazio publikoko kontratazio gaitan eskatzen zaizkionak: obra, zerbitzuen kudeaketa, hornikuntza, aholkularitza eta laguntza edo zerbitzuetakoak.

- Idazkaritza eta Hirigintza arloei eta administrazioan sortzen diren beste alor batzuei dagozkien Alkatetzako Dekretuak prestatzea.

- Alkatetzako gaitan laguntzea: hiritarrei erantzuten, etab.

- Erregistroa, espedienteen jarraipena eta artxiboa, dokumentazioak etab. kontrolatzea eta, hala badagokio, aurrera eramatea.

- Idazkaritza—Kontu-hartzailearen arloan Udaleko web orria kontrolatzea eta, hala badagokio, eguneratzea: Ordenantza eta Erregelamenduen aldaketak, lizitazio, lehiaketa eta lan-eskaintza etab.en iragarpenak.

- Eskatzen zaizkion dossierrak, hainbat dokumentu, ziurtagiri, etab. egitea.

- Idazkaritza—Kontu-hartzaitzari eta

expedientes de plusvalías llevar a cabo en su caso, seguimiento y archivo de expedientes de plusvalías.

#### D. Otras funciones

- Impulsar y apoyar técnicamente los procesos de mejora continua y la implantación de la Dirección por Objetivos.

- Las que se le requieran en materia de contratación Administrativa pública: De obras, gestión de servicios, de suministros, de consultoría y asistencia o de servicios.

- Elaborar los Decretos de Alcaldía correspondientes a las áreas de Secretaría, Urbanismo y otros que se generan dentro en el ámbito de la administración .

- Colaborar en los asuntos de Alcaldía: contestación a los ciudadanos, etc.

- Controlar y llevar a cabo en su caso el registro, seguimiento y archivo de expedientes, documentación, etc.

- Controlar y llevar a cabo en su caso la actualización de la página web del Ayuntamiento en el área de Secretaría-Intervención : Cambios de Ordenanzas y Reglamentos, anuncios de licitaciones, concursos y ofertas de empleo, etc.

- Realizar los dossieres, documentos diversos, certificados, etc. que le sean solicitados.

- Apoyar en general al Departamento de Secretaría – Intervención y Urbanismo.

Hirigintza departamenduari, oro har, laguntzea.

- Edozein udal organoren Idazkari gisa jardutea, Idazkaria ordezkatzuz honen ez agertzea, lanpostu huts edo gaixotasun kasuan.

- Idazkari—Kontu-hartzaileak edo ordezkatzuz duen funtzionarioak emandako lanak burutzea, bere funtzioen beharrezko eskuordetzea betez.

- Bere lanbidearen edo lanpostuaren barruan ematen zaion beste edozein lan egitea.

Alkate jaunak jakinarazten die bertaratutakoie proposamenean aipatzen diren funtzioak orientagarriak direla.

Partaideek aho batez erabakitzen dute Udaletxeko funtzionarioen plantila organikoa eta dagokion lanpostu-zerrenda aldatzea, ondorengo eran:

1.- Erdi mailako teknikaria postua desagertzea.

2.- Goi mailako teknikari postua sortzea ondorengo berezitasunekin:

Taldea: A  
Eskala: Administrazio Orokorra  
Azpieskala: Teknikoa  
Ordainsaria: 17 EUFALEBA

- Actuar de Secretario de cualquier órgano municipal, sustituyendo al Secretario en caso de ausencia, vacante o enfermedad de éste.

- Realizar las tareas que al efecto le sean encomendadas por el Secretario – Interventor o funcionario que le sustituya, en virtud de la oportuna delegación de funciones.

- Cualquier otra tarea que le sea encomendada dentro de las propias de su profesión y puesto de trabajo.

El Sr. Alcalde informa a los presentes que las funciones que se señalan en su propuesta son orientativas.

Se acuerda por unanimidad modificar la Plantilla Orgánica de funcionarios del Ayuntamiento y la correspondiente Relación de Puestos de Trabajo, en el siguiente sentido:

1.- Suprimir la plaza de Técnico Medio.

2.- Crear un plaza de Técnico superior con las características que se definen a continuación:

Grupo clasificador: A  
Escala: Administración General  
Subescala: Técnica  
Nivel retributivo: 17 ARCEPAFE

Hizkuntza-eskakizuna: 4	Perfil lingüístico: 4
Lanpostu-hornikuntza: Lehiaketa-Oposaketa	Forma de provisión: Concurso-Oposición
Eskaturiko titulazioa: Zuzenbidean lizentziatua	Titulación exigida: Licenciado en Derecho
3.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean akordio hau argitaratzea	3.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Guipúzcoa.

### **5.- ITXITAKO EKITALDIKO SARRERA BATI BAXA EMATEKO PROPOSAMENA.**

2005eko urriaren 18an alkatetzaren ebazpen bidez onetsitako 2004 urteko likidazioan, “Euskal Jaurlaritzako dirulaguntza. Done Jakue bidea” 4 0200.410.000.02.01 partidari errekonozitu modura 992 euro agertzen dira.

2005eko azaroaren 25ean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saiak Anoetako Udaleri Santiago bidearen seinaleak direla eta, aurkeztutako 1984 eurotako aurrekontuaren arabera 992 eurtako dirulaguntza bat onartu zuen. Ondoren, Udalak 1633,97 eurotako gastua justifikatu zuen; beraz, kontutan izanik eginiko gastua onartutako aurrekontua baino txikiagoa izan zela, 816,94 eurotako dirulaguntza onartu du Eusko Jaurlaritzak eta ez bere garain esaniko 992 eurotako.

Partaideek aho batez erabakitzen dute 2004 urteko Likidazioan “Euskal Jaurlaritzako dirulaguntza. Done Jakue bidea” 4 0200.410.000.02.01 partidari

Visto que en la Liquidación del ejercicio 2004 aprobada por esta Alcaldía con fecha 18 de octubre de dos mil cinco, la partida 4 0200.410.000.02.01 “Euskal Jaurlaritzako dirulaguntza. Done Jakue bidea” figura con un reconocido de 992 euros.

Vista la resolución presentada por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco de fecha 25 de noviembre de 2005, en el que señala, que habiendo concedido al Ayuntamiento de Anoeta una subvención por importe de 992 euros en concepto de señalización turística del Camino de Santiago con un presupuesto admitido de 1984 euros y justificado posteriormente por el Ayuntamiento facturas por un total de gasto realizado de 1.633,87 euros; en consecuencia, y teniendo en cuenta que el gasto realizado fue inferior al presupuesto admitido, aprueba conceder una subvención de 816,94 euros en lugar de los 992 euros aprobados en su día.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos dar de baja a parte del reconocido de la partida 4 0200.410.000.02.01 “Euskal Jaurlaritzako dirulaguntza. Done Jakue

dagokion errekonizitu zati bati baxa ematea, alegia 175,06 euro, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ebatzitakoaren arabera.	bidea” de la Liquidación del ejercicio 2004 fijando en la cantidad de 175,06 euros en aplicación de la resolución recibida por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.
---	---

## 6.- ESKOLA KIROLARI BURUZKO ADIERAZPENA.

Mikel Zubillaga Galarraga zinegotzi jaunak Gipuzkoako Kirol Kontseiluko lehendakaria. Gizarte eta Erakunde Harremanetarko Foru Diputatuak luzaturiko ondorengo adierazpena irakurtzen du:	Por el Concejal D. Mikel Zubillaga Galarraga se procede a dar lectura del manifiesto de “Gipuzkoako Kirol Kontseiluko lehendakaria. Gizarte eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua” que dice como sigue:
---	---

*“ESKOLA KIROLARI BURUZKO ADIERAZPENA. Zioen azalpena.-Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kirol arloan, Autonomia Estatuko 10.36 artikuluan jasotzen denez. Bestalde, Lurralde Historikoen 27/1983 Legeak foru organoei ematen die erkidego osorako erakundeek emandako arauak garatu eta gauzatzea ondoko arlo batean: “Kirolaren sustapena. Eskola kiroleko eta kirola guztiontzako programak” arloan.- Eskainaren 11n eman zen Euskadiko kirolaren 14/1998 Legeak honela definitzen du eskola kirola: “ikasleek nahitaezko eskolatze aldian irakasteko orduetatik kanpoko egiten duten kirol jarduera antolatuta” eta ondokoa seinalatzen du, era berean: “eskola kirolean, ahal dela, kirol anitz praktikatuko da eta lehiaketa kirola ez da izango helburu bakarra. Horrela, ikasle guztiek hainbat kirol mota ezagutu eta horietan aritzea lortu nahi da, zeinek bere borondate, gaitasun fisiko eta adinaren arabera”.- Gainera, otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, astialdi aktiborako duten eskubideari dagokionez, ondokoa ezartzen du: “haurrek eta nerabeek eskubidea dute kirolak eta jarduera fisikoak egiteko, eta saihestu egin behar da jarduera horietan lehiakortasuna lehenbiziko balioztat sustatzea. Lehiaketa kirolean parte hartzea borondatezkoa izan beharko da, beti, eta entrenamendu plan eta metodoek errespetatu egin beharko dituzte haien egoera fisikoa eta hezkuntza beharizanak”.- Bide horretan bertan, esan dezakegu adierazpen, akordio eta proiektu ugariak erakusten dutela eskoletako umeen jarduera fisikoaren eta kirolaren garrantza. Horien artean, ondokoak aipa ditzakegu:.- Nizako Tratatuak (2000 urtea) ezartzen du kirolari gazteak babestu egin behar direla, batez ere beren heizketari eta lanbide prestakuntzari begiratuz. Europar Legebiltzarrak 2004. urtea Kirolaren bidezko Heziketaren Europar Urte deklaratu zuen.- NBEko Batzar Nagusiak (2003. urtea) “heziketa, osasuna, garapena eta bakea sustatzeko bitartekotzat hartzen du kirola” Ebazpen hori betetzeko NBEko idazkari nagusiak (2004. urtea) Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren Nazioarteko Urte aurkeztu zuen.- Osasunaren Munduko Batzarrak (2004. urtea) Elikadurari, Jarudera Fisikoari eta Osasunari buruzko Mundu Estrategia onartu zuen, beste batzen artean, ondoko helburu hau zuela: “gaizki elikatzeak eta jarduera fisikorik ez egiteak dakartzan erikortasun eta hilkortasuna murriztea”. Adierazpen horren ondorioz, Estatuko Gobernuaren Osasun eta Kontsumo Ministerioari, autonomia erkidego guztien lankidetzarekin, NAOS estrategia landu du eta hor bultzatu nahi du “jarduera fisikoa eta kirola sarri egitea ikastetxean, eskoletako kiroldegiak erabiltzeko ordutegia zabalduz asteburuetak kirol jarduera programak egiteko, umeak ikastetxera oinez edo bizikletan joan daitezela sustatuz, kirolari buruzko lantegietan parte hartzeko kirolariek harremanetan jarritz, etab”.- 2003-2007 aldiko Kirolaren Euskal Planaren helburu estrategikoa ondo da: “Euskadirako bertarako kirol eredia garatzea, euskal herritarren bizitza aberastu eta bere kirol ibilbiderako “aukera” emando duena” eta planak bere lehenbiziko lerro estrategikotzat ESKOLA KIROLA hartzen du, eta helburua ondo da: “haur kirolarien hezkuntza garapena osatzeko eta kirolari bakoitzaren beharrak asetzeko Eskola Kiroleko Eredua zehaztea”.- Azkenik, 2004ko abenduaren 11 eta 12an, Araba, Bizkaia eta*

Gipuzkoako ikastetxeetako 13 et 14 urteko ehun bat ume Donostian elkartu ziren eskola kirolari buruz eztabaidatzeko. Bileran horren emaitza **Eskola Kirolaren manifestua** izan da, eskola kirolean partehartzaile nagusi direnen nahiak eta asmoak bilduz.- Horren ondorioz eta zioen azalpeneko edukien arabera eta, **KONTUTAN HARTUZ,- Eskola kirola** Kirolaren Euskal Sistemaren oinarri dela eta, horren ondorioz Gipuzkoako kirol sistemarena, unibertsaltasun printzipioa onetsiz eredu propioan oinarrituta, eskoletako ikasle guztiak bertan biltzeko.- Ereduak helburu nagusizat kirol kultur iraunkorra ezartzea duela eskoletako umeen artean, kirol modalitate ezberdinak ezagutuz eta lehiaketa bidez edo jolasaren bidez praktikatzuz, bakoitzak duen borondatea, gaitasun fisiko eta osasun kontuan hartuz, eta **eskoletako ikasle ezinduen integrazioari** jaramon handia eginez.- Erakundeek ume eta gazteen osotasuna zaintzeko betebeharra dutela, **pertsonarengan zentratutako** eta gizatiarragoak egiteko potentzialtasun guztiak garatuko dituen kirola eskainiz- Ume eta gazteen heziketa integralaren alde egin behar duela eskola kirolak, hezkuntza prozesu orokorra osatzeko berebiziko jarduera delako, batez ere **bizi ohitura osasungarriak** sortzeari dagokionez.- Eredua **integrala eta integratzailea** dela. Integrala, kirolak eta jarduera fisikoak egiteko eskaintza posibilitate guztiak hartzen dituelako, eta, integratzailea, eskolako adinekoekin zerikusi duten gizarte agente guztien lankidetzaren bidez egituratzen delako: **herri administrazio, ikastetxe eta kirol federazio eta klub**en bidez”.

Partaideek aho batez erabakitzen | Ante ello, se acuerda por  
dute: | unanimidad de los reunidos:

Lehena.- Eskola Kirolaren manifestuari atxikitzea, hiru lurraldeetako ikastetxeetako umeek, Donostian 2004ko abenduaren 11 eta 12an egindako Euskadiko Eskola Kirolari buruzko I. Kongresuan egin eta onartu zuten manifestuari.

Bigarren.- Ondoko konpromiso hauek hartzea:

- Onartzea Eskola Kirola Gipuzkoako lurralde historikoko kirol sistemaren oinarri dela eta, ondorioz, beharrezko bitarteko guztiak jarri behar direla eskola kirolaren antolaketa Euskal Herriko Kirolaren 14/1998 Legea garatuz eta 2003-2007 aldiko Kirolaren Euskal Planean ezarritakotik atera den arautegi esparru berriari egokitzeko.
- Udal honen eskumenen barruan, Gipuzkoako Eskola kirolaren ereduaren erabat zabaltzen laguntzea, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Urteko Programa onartuz, plan horren edukia bat baitatuz legerian dauden printzipioekin.
- Bultzatzea Eskola Kirolean ari diren agente guztiak lurraldeko eskoletako ume guztien beharretara egoki daitezela salbuespenik gabe, halako moduz ezen partida eta lehiaketetako arautegietan eta detektatu, teknifikatu eta entrenatzeko metodo eta planetan eskoletako umeen kondizio fisikoa eta heziketa beharrak errespetatu daitezkeen, Ume eta Gazteen Atentzio eta Babesari buruz otsailaren 18an emandako 3/2005 Legean agindutakoa betez.
- Kirolak bere adierazpide guztietan dituen balio positiboak hedatzea, batez ere arrazismoaren eta portaera bortitzen kontrakoak direnean.
- Anoeta Udalako erakunde publiko eta pribatuei, herritarrei, oro har, eta, batez ere eskoletako umeen gurasoei adierazpen honi atxikipena emateko gonbitea egitea.

## 7.- “AURRE-MATRIKULAZIO GARAIAN, EUSKALDUNTZEN DUEN ESKOLA HELBURU” MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Mikel Urkola jaunak aurkezturiko  
ondorengo mozioa ikusirik:

Vista la moción presentada por  
Mikel Urkola que dice como sigue:

“AURRE-MATRILUKAZIO GARAIAN, EUSKALDUNTZEN DUEN ESKOLA HELBURU”.- Euskal Herriko irakaskuntzan orain arte indarrean egon diren hizkuntza politikak erabat agorturik daude, ez baitira euskal belaunaldi berrien %100eko euskalduntze funtzionala lortzeko balagarriak. Eta, beraz, guztion eskubidea den helburu hori bermatuko duen hizkuntza politika berria nahitaezko da. Azken urteotan euskal hezkuntza komunitateak nahiz euskalgintzak hainbatetan adierazitako ideia da hori.- Gure herrian indarrean dauden hizkuntza politiken ondorioa esaldi batean laburbil daiteke: egungo eskolak ez du euskalduntzen. Lege, dekretu eta neurrien maratila horren gainetik, horixe da errealitate argi bezain kezagarria. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitatera etorrira,-. EAE-ko Estatutuaren 6. artikulua honela dio: Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herriaren gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Ideia bera errepikatzen da 82ko Euskararen Legean: Euskal Herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Eta irakaskuntzari dagokionez, honako hau dio 17. atalak: Jaurlearitzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaren emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du.- Legediak dioena betetzeko irakaskuntzaren bidezko euskalduntzea “bermatzeko” ezarritako hizkuntza ereduak porrot egin dute. Hogei urteotan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasle gehienek ez dutelako “nahitaezko ikastaldiak ukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina” ezagutzarik lortu. Edo, hobeto esanda, ikasle guztiek gaztelaren erabateko ezagutza lortu duten bitartean, ez da hala gertatu euskarari dagokionean.- Hamaikatxo ikerketek argi eta garbi erakusten dute A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen eta soilik zenbait D ereduan lortzen dela euskara maila egokia, baina hori ere ez da %100ean gertatzen. Gaztelaniaren ezagutza, ordea, %100ean lortzen dute arazorik gabe. Legediak dioena ere ez da betetzen.- Eusko Legebiltzarrak 2005eko abenduan onartutako Legez Besteko Proposamenaren harira, Anoetarrok Auzolanean udal taldeak Anoetako Udalarari eskatzen dio:- 1.- Herri mailako egoera soziolinguistikoaren azterketa egitea, euskaldunduko duen eredu horri bidean urratsak emateko.- 2.- Aurre-matrikulazio garaiari begira eta euskaldunduko duen ereduaren ezartzen den bitartean, egun euskalduntzen duen ereduaren alde egitea; alegia, D. Ereduaren alde.- 3.- Anoetako udalak beharrezko bitarteko guztiak jartzeko konpromisoa hartzea, euskalduntzea bermatuko duten normalkuntza plangintzen zerbitzuan. Bide horretan, arreta berezia eskainiko zaio udalaren esku dagoen hezkuntza ez formalaren alorrari. Udalak eskaintzen edota babesten dituen ekimen guztietan euskarazko eskaintza osoa bermatuko duela ziurtatuz (aisialdi, kirol, kultur... ekimenak”. Anoetarrok Auzolanean Taldearen izenean Mikel Urkola P8021430L”.

EAJ-PNV/Eak aurkezturiko  
ondorengo mozioa ikusirik:

Vista la moción presentada por  
EAJ-PNV/EA que dice como sigue:

“AURKEZTEKO ARRAZOTIAK.-1.-Anoetako Udalaren ustez, euskararen normalizaziorako egindako bidearen balantzea positiboa da.-Euskal Autonomia Erkidegoan indar eta tresna ugari jarri da euskararen alde, lege-araudia, erakunde publikoak, aurrekontu publikoak, plangintzak edota gizarte-ekimena bera ere, tresna horietako bat Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia delarik. Denen artean eginiko ahaleginari esker, aurrerapen galantak egin ditu euskarak, hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan, batik bat. Asko da egindakoa, aurretik inoiz egin izan ez dena; unean-unean egin beharrekoa egin da, alegia. Euskarari eman nahi zaion status juridikoa eta euskararen

normalizaziorako landu diren hizkuntza politikak egokiak izan dira, eta horren lekuko ditugu emaitzak: orain lehen baino gehiago egiten da euskaraz, eta lehen egiten ez zen tokietan ere egiten da.-2.- Euskararen etorkizunaz baikorrak izateko arrazoi ugari izanda ere, ezin da euskararen geroa bermatutzat jo.-Batetik, euskararen gaur egungo egoera desberdina da euskaraz hitz egiten den hiru eremuetan. Eremu bakoitzean ordenamendu juridiko desberdin bat dago indarrean, eta bakoitzak euskarari aitortzen dion status juridiko desberdinen ondorioz, hizkuntza politika desberdinak bideratu dira azken urteotan.- Bestetik, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko jauzia handia da orokorrean, eta batez ere esparru ez formaletan, hau da, lagunartean, aisialdian edo familian. Egin zitekeen guztia egin dugulako sentsazioa albo batera utzi eta orain arteko joera positiboa indartu behar dugu, hortaz, ezarri beharreko neurri berriak ezarri eta zuzendu beharrekoak zuzenduz, erabileran eragiten duten baldintzak aintzat harturik.- 3.- Une honetako benetako erronka euskararen erabilera zabaltzea da- Erronka horri modu egokian aurre egiteko, hizkuntza politika integratzaile eta malgu bezain indar-berritzailea behar da batetik, eta dagozkion neurriak, aurrekontuak, baliabideak eta elkarlana eskuratu, bestetik.- Gauzak horrela, Anoetako Udalak honako hau erabakitzen du:-1.- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza politikaren irizpide nagusiekin bat egitea.- . Anoetako Udalak, euskal hiritarren hizkuntza eskubideak betetze aldera, hizkuntza ahularen aldeko ekintza positiboa egiten jarraituko du.- Hiritarren gehiengoak onartutako plangintzak garatzeko konpromisoa berresten du (hiritarren borondatea).- Udalaren jarduna udalerriko eragileen jardunaz osatuko da elkarlanean.- 2.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatu eta eten gabe egokitze konpromisoa hartzea / berrestea.- Anoetako Udalak euskararen ezagutza, erabilera eta kalitatea areagotu eta hobetzen jarraitzeko dagozkion neurriak hartu edota egokituko ditu, udal barruko zein udalerrirako. Udal barruan, euskararen erabilera planean oinarrituta, udal zerbitzuak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz emango direla ziurtatu beharko da batetik, eta euskaraz lan egiteko (agiriak euskaraz sortzeko), atal elebidunak sortuko dira bestetik. Udalerriko arlo desberdinetan —aisialdian, kirolean, merkataritzan edo enpresetan dela-, euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko neurriak indartuko dira.- Anoetako Udalak neurri horiek garatzeko beharrezkoak diren diru baliabideak eta giza baliabideak sortu edota sendotuko ditu, planak irauten duen urtealdirako.- Planari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko beharrezkoa da, bestalde, Anoetako udalerriko gizarte-eragileen iritzia jasotzea; hori dela eta, planaren esparru desberdinetan eragile diren kideez osaturiko aholkularitza organoa sustatuko da (Euskara Aholku Batzordea), egokitu edota garatzerakoan ekarpenak egin ditzan.

Ondoren, Alkate jaunak Mikel Urkolak aurkezturiko mozioa bozketara jartzen du ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: BAT ERE EZ  
Aurkako botuak: BAT ERE EZ  
Abstentzioak: BOST

Segidan, EAJ-PNV/EA-k aurkezturiko mozioa bozketara jartzen du ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: BOST  
Aurkako botuak: BAT ERE EZ  
Abstentzioak: BAT ERE EZ

A continuación el Sr. Alcalde somete a votación la moción presenta por Mikel Urkola obteniendo el siguiente resultado:

Votos a favor: NINGUNO  
Votos en contra: NINGUNO  
Abstenciones: CINCO

Acto seguido se somete a votación la moción presentada por EAJ-PNV/EA obteniendo el siguiente resultado:

Votos a favor: CINCO  
Votos en contra: NINGUNO  
Abstenciones: NINGUNO

Eginiko bozketen emaitza ikusirik,  
EAJ-PNV/EA-k aurkezturiko mozioa  
oneste erabakitzen da.

Ante el resultado de la votación  
realizada se acuerda aprobar la moción  
presentada por EAJ-PNV/EA.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko  
bederatziak bost gutxi direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.